


DROGEN INGURUKO LEGERIARI BURUZKO INFORMAZIO GIDALIBURUA (bereziki adingabeei begira)




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA
Droga Gaietako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES
Dirección de Drogodependencias





DROGEN INGURUKO LEGERIARI BURUZKO INFORMAZIO GIDALIBURUA (bereziki adingabeei begira)



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ETXERIZITZA ETA GIZARTE
GAETAKO SAILA
Droga Gasteako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES
Dirección de Drogadependencias

2007, Gasteiz - Vitoria

Fitxa teknikoa

Egileak
Xabier Arana
Isabel German

Zuzendariak
José Luís de la Cuesta
Ignacio Muñagorri

Koordinazio teknikoa
Kriminologiaren Euskal Institutua (KREI/IVAC) (EHU/UPV)

Finantzaketa
Eusko Jauriaritza. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Droga Gaietako Zuzendaritza

Ilustrazioak
Gabriela Muñagorri

Diseinua eta maketazioa
Gabriela Muñagorri
Paco Rivas

Imprimatzea

Aurkezpena

Eskuartean dudan gidaliburu honen xedea drogen alorreko legedia errazago ulertzea da, bereziki 14tik 18 urtera bitarteko gazteei dagokienez.

Hezkuntzako profesionalentzat balio handiko tresna da, zalantzarik gabe, eta baita eskolan, aisialdian, familiarean, berdinen artean, komunitatean, eta horrelako eremuetan interesa eta eztabaida sortzeko oinarritzko materiala ere.

Gidaliburu honek ez du soilik droga ilegalei buruz hitz egiten, baizik eta tabakoari eta alkoholari buruz ere badihardu, eta baita horien gaineko debeku-arau garrantzitsuei buruz ere, bai gazteei bai gizarteari osoari dagokienez.

Baliteke gure gizartearen eta, zehazki, egungo gazteriaren une garrantzitsuenetako batean egotea, drogen erabilerak eta gehiegikeriak eragiten duen eztabaidari lotuta. Argitalpen honek eztabaida horretan lagundu nahi du, gaur egun substantzia horien kontsumo, salerosketa eta publizitatearen arloan bizi dugun lege-egoera agerian jarrita, eta oraindik 18 urte bete ez dituztenen inguruko gaiei buruz trataera berezi batekin hitz eginda.

Beraz, gidaliburua praktikoa da, eguneratua eta laburra, irakurterraza, eta egun indarrean dauden lege-testu ugariak ulertzen laguntzen duena.

Azken batean, gazteak ez ezik, gizarte-hezkuntzaren eremuetan lan egiten duten agente guztiak ere lan honen zain zeuden. Hizkera ulergarri baina, legearen ikuspuntutik, zehatza erabiliz, egun indarrean dagoen lege-ikuspegia azaltzen digu, eta drogei eta gazteei buruz gaur egun denon ahotan dagoen eztabaidan interesa duten pertsona guztiei arlo horretako lege-alderdiak hurbiltzen dizkie.

Eusko Jauriaritzaren Droga Gaietako Zuzendaritzaren eskutik argia ikusi duen gidaliburu honek ere ederki erakusten du zer-nolako lana egiten dugun adingabe eta drogaren arloan, eginkizun horretan aritzea erabaki baitugu eta horretantxe ari baikara gaur egun.

Bene-benetan espero dut zuen gustukoa izatea, eta gainera, guk guztiok egiten dihardugun lan honetan tresna eraginkorra izatea.

Besarkada bat,

Belen Bilbao Borde
Droga Gaietako zuzendaria
Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila
Eusko Jauriaritza

AURKIBIDEA

LEGEEN AIPAMENA	7
HITZAURREA	8
GIDAREN HELBURUA	12
1. DROGAK KONTSUMITZEA	13
1.1. Alkohola kontsumitzea	13
1.2. Tabakoa kontsumitzea	13
1.3. Botikak kontsumitzea	17
1.4. Legez kanpoko drogak kontsumitzea	19
A. Jendaurrean kontsumitzea	21
B. Edukitzea	21
C. Legez kanpoko kontsumoa toleratzea	21
1.5. Arau-haustek eta zehapenak	23
A. Alkohol-kontsumoarekin zerikusia duten arau-haustek	23
B. Tabako-kontsumoarekin zerikusia duten arau-haustek	23
C. Botika-kontsumoarekin zerikusia duten arau-haustek	25
D. Legez kanpoko substantzien kontsumoarekin zerikusia duten arau-haustek	25
E. Legez kanpoko substantziak edukitzearekin zerikusia duten arau-haustek	26
F. Legez kanpoko substantzien kontsumoaren tolerantziarekin zerikusia duten arau-haustek	26
2. DROGEN SALMENTA ETA HORNIDURA	27
2.1. Alkohola saltzea eta hornitzea	27
A. Biztanleak, oro har	27
B. Adingabeak	27
2.2. Tabakoa saltzea eta hornitzea	29
A. Biztanleak, oro har	29

AURKIBIDEA

B. Adingabeak	29
2.3. Botikak saltzea eta hornitzea	30
2.4. Etxean eta industrian erabiltzen diren produktuak eta arauz ezartzen diren substantzia lurrunkorrek saltzea	30
A. Adingabeak	30
2.5. Legez kanpoko drogak saltzea eta hornitzea	30
A. Biztanleak, oro har	30
B. Adingabeak	34
C. Norberaren kontsumoa eta legez kanpoko salmenta bereizteko irizpideak	34
2.6. Arau-hausteak eta zehapenak	36
A. Biztanleak, oro har	36
a. Alkoholaren salmentarekin eta hornidurarekin zerikusia duten arau-hausteak	36
b. Tabakoaren salmentarekin eta hornidurarekin zerikusia duten arau-hausteak	38
c. Botiken salmentarekin eta hornidurarekin zerikusia duten arau-hausteak	38
d. Etxean eta industrian erabiltzen diren produktuak eta arauz ezartzen diren substantzia lurrunkorrek saltzearekin zerikusia duten arau-hausteak	40
e. Legez kanpoko substantzien salmentarekin eta hornidurarekin zerikusia duten arau-hausteak	40
B. Adingabeak	47
3. GIDATZEA ETA DROGAK	50
3.1. Gidatzea eta alkohola	50
3.2. Gidatzea eta estupefazianteak, psikotropikoak, bizigarriak eta antzeko beste substantzia batzuk ...	50
3.3. Alkoholemia-proba edo substantzia estupefazianteak, psikotropikoak, bizigarriak edo antzeko beste substantzia batzuk atzemateko probak egin nahi ez izateari erreparatuz	52
3.4. Arau-hausteak eta zehapenak	52

AURKIBIDEA

4. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE GAI BATZUK	55
4.1. Identifikatzea eta miaketa	55
4.2. Ondorioak, mugaren alde batean eta bestean	55
4.3. Erabilera terapeutikoa	57
4.4. Kontsumorako tresnak non-nahi uztea	58
4.5. Salbuesleak eta aringarriak	60
4.6. Kartzelaren alternatibak	60
4.7. Drogen eremuko legeriak askoz ere gai gehiago biltzen ditu	60
4.8. Errekurtsua jartzeko aukera	61
4.9. Kontsumitzaileen eskubideak	61
5. HELBIDE INTERESGARRIAK	64

LEGEEN AIPAMENA

- Estupefazianteei buruzko 17/1967 **Legea: 17/67 Legea.**
- Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko 339/1990 **Legea: 339/90 Legea.**
- 25/1990 Sendagaiei buruzko **Legea: 25/90 Legea.**
- Herritarren Segurtasuna Babesteari buruzko 1/1992 Lege Organikoa: **1/92 Legea.**
- Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen arauen testua aldatzen duen 5/1997 **Legea: 5/97 Legea.**
- 10/95 Lege Organikoa, **Zigor Kodea.**
- 18/1998 Legea, droga-mendetasunaren inguruko prebentzioari, asistentziari eta gizarteratzeari buruzkoa: 18/98 **Legea (Euskal Autonomia Erkidegoa).**
- 5/2000 Lege Organikoa, Adingabeen Erantzukizun Penala arautzen duena¹: **5/2000 Legea.**
- 1428/2003 Errege Dekretua, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu onartua aplikatzeko eta garatzeko Zirkulazio Arautegi Orokorrari buruzkoa: **1428/03 Errege Dekretua.**
- 2004/757/JAI Esparru Erabakia, Europar Batasuneko Kontseiluarena, drogen trafikoaren eremuan delituak izan daitezkeen elementuei ezarri beharreko gutxieneko xedapenak eta aplika daitezkeen zigorrak ezartzeari buruzkoa: **2004/757 EE.**
- 1774/2004 Errege Dekretua, Adingabeen Erantzukizun Penala arautzen duen urtarilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren arautegia onartzen duena: **1774/04 Arautegia.**
- 28/2005 Legea, tabakismoaren aurkako osasun-neurriei, eta tabako-produktuen salmenta, hornidura, kontsumoa eta publizitatea arautzeari buruzkoa: **28/05 Legea.**

¹ Lege hori aldatzen duten legeak honako hauek dira: abenduaren 22ko 7/2000 Lege Organikoa, abenduaren 22ko 9/2000 Lege Organikoa eta abenduaren 4ko 8/2006 Lege Organikoa

HITZAURREA

Azken urte hauetan, drogen inguruko legeek hainbat aldaketa izan dituzte, azkena tabakismoaren aurkako osasun-neurriei buruzko legea izan da, hain zuzen ere. Gehiengoak ez ditu aldaketa horiek ezagutzen, ezta aldaketa horiek eragiten dituzten ondorioak ere.


Drogekin zerikusia duten lege asko daude: Substantzia mota horiek, hau da, gaur egun legez kanpo dauden eta gure gizartean sustatzen diren substantziak, arautzeko aukera handiak daude. Indarreko legeria hainbat gairen ondorioa da, droga toxiko, estupefaziante eta substantzia psikotropikoen inguruko nazioarteko hitzarmenen, leku bakoitzeko kontsumoekin zerikusia duten kultur eraginaren eta drogen negozioak sortzen dituen interes ekonomikoen ondorioa, hain zuzen ere.

Substantzia beraren kontsumoak lege-ondorio oso desberdinak izan ditzake kontsumitzaileentzat, honako alderdi hauen arabera:

- Zein herrialdean kontsumitu den.
- Kontsumitzailearen adina.
- Non kontsumitu den.
- Kontsumitzean egiten ari den ekintza.
- Kontsumitzearen arrazoia zein den.

Legez kanpoko substantziekin zerikusia duten gaiak nazioarteko ikuspegitik arautzeko interesak mende batetik gorako indarraldia du. Nazioarteko lege-esparruan, gai honetan eragin handiena duten nazioarteko hitzarmenak

DROGEKIN ZERIKUSIA DUEN INDARREKO LEGERIA HAINBAT GAIREN ONDORIOA DA:



honako hauek dira:

- Estupefaziantei buruzko 1961eko Konbentzio Bakarra².
- Substantzia Psikotropikoei buruzko 1971ko Hitzarmena³.
- Estupefazianteen eta substantzia psikotropikoen legez kanpoko trafikoaren aurkako Nazio Batuen 1988 hitzarmena⁴.

Hitzarmen horietan ez da definitzen *droga* zer den, *estupefaziante* terminoa aipatzen da bakarrik, horiek biltzeko zerrenda batzuen arabera. Horrela bada, drogak ez diren substantzia batzuk -koka-hostoa, esaterako- estupefaziantezat hartzen dira, eta estupefazianteak diren beste substantzia batzuk, ordea, -alkohola edo tabakoa, esaterako- ez dira zerrenda horretan biltzen. Legeztatutako drogen eta legez kanpoko drogen arteko bereizketa ez dago substantzia bakoitzari atxikitako arriskuengatik irizpide zientifikoetan oinarrituta, baizik eta alderdi kultural, sozial, politiko eta ekonomikoetan.

Edozein droga mota kontsumitzeak arriskuak ditu, ez direlako kalterik eragiten ez duten substantziak. Substantziak eta substantzia horiek kontsumitzeak, saltzeak eta antzeko beste ekintza batzuek eragiten dituzten lege-ondorioak ezagutzeak lagundu dezake drogekin eta horien politikekin zerikusia duten zenbait arrisku murrizten.

² http://www.unodc.org/pdf/convention_1961_es.pdf

³ http://www.unodc.org/pdf/convention_1971_es.pdf

⁴ http://www.unodc.org/pdf/convention_1988_es.pdf



DROGAK

Legeztatutako eta legez kanpoko en arteko bereizketa

Irizpide zientifikoak:
Substantzia bakoitzari atxikitako
arrikuak



Alderdi kultural,
sozial, politiko
eta
ekonomikoak



GIDAREN HELBURUA

Gidaliburu honen helburua honako hau da: drogen inguruko egungo legeak argi eta erraz ezagutzera ematea, adingabeei erreparatuz. Zeregina ez da erraza, zeren aztertutako kasuetako batzuei ezin baitzaie baieztapen edo ezeztapen huts batekin erantzun, baizik eta epaileek egindako interpretazioen arabekoak dira, eta interpretazio horiek, batzuetan, ez dira elkarrekin bat etortzen.

Gidaliburu hau nerabeekin eta gazteekin harremanak dituzten hezkuntzako profesionalentzat bereziki denez gero, guk honako hau nahi dugu: gida hau informaziorako material erabilgarria eta elkarriketarako egokia izatea. Geletan irakurtzeko modukoa izatea ez ezik, adin bereko pertsonen arteko elkarriketetan eta familian horri buruz eztabaidatzeko modukoa izatea ere. Gidaliburu honetan biltzen diren gaiak askatasun osoz proposatu eta horiei buruz hitz egiteko aukera ematen dutenak izatea, eta *Gida drogen inguruko Legeak* ezagutzeko tresna bat izatea; izan ere, askotan ez dugu lege horiei buruzko ezagutza zehatzik izaten. *Gidaliburuaren* hitzaurrean eta edukian ikusten den bezala, hainbat drogari buruz ez ezik (horiekin trafikatzeko kriminalizazio penal handia jasotzen du, eta horiek kontsumitzea edo edukitzea, zirkunstantzien arabera, zigortu daiteke) beste substantzia batzuei buruz ere hitz egiten da, hala nola edari alkoholdunei edo tabakoari buruz; izan ere, horien eragin kaltegarria dela medio, kasuen arabera, horiek lortzeko edo kontsumitzeko murrizketa handiak jar daitezke.

1. DROGAK KONTSUMITZEA

1.1. Alkohola kontsumitzea

Honako kasu hauetan dauden pertsonak, zerbitzuan dauden bitartean, debekatuta daukate edari alkoholdunak kontsumitzea: zerbitzu publikoko ibilgailuen gidariak, sanitarioak, 18 urtetik beherako ikasleak dituzten irakasleak, armadetako kideak, eta su-armak erabiltzen dituzten gainerako profesionalak, eta oro har, alkohola kontsumitzeak kontsumitu duenaren edo hirugarrenen bizitza edo osotasun fisikoa arriskuan jar lezaketen edo kalteren bat eragin lezaketen jarduerak betetzen dituztenak (18/98 Legearen 22. artikulua).

Era berean, aurreko paragrafoan aipatu diren pertsonak, zerbitzuan dauden bitartean, edo zerbitzua betetzeko prest daudenean, debekatuta daukate edari alkoholdunen eraginpean egotea, hau da, 1.000 cc bakoitzeko ez du 0,3 gramotik gorakoa alkohol-tasa izan behar odolean. (18/98 Legearen 22.3 artikulua).

1.2. Tabakoa kontsumitzea

2006ko urtarrilaren 1ean tabakismoaren aurkako osasun-neurriei buruzko 28/05 Legea jarri zen indarrean. Lege horrek tabakoaren produktuen kontsumoa, salmenta, hornidura eta publizitatea arautzeko neurriak ezartzen ditu. Debeku asko eta asko azaltzen ziren Euskal Autonomia Erkidegoaren 18/98 Legean. Lege horren arabera:

Erabat debekatuta dago garraio-ibilgailu edo garraiobide guztietan -enpresa publikokoak nahiz enpresa pribatukoak izan- tabakoa erretzea (18/98 Legearen 23.1 artikulua):



- Hiri-barruko eta hiriarteko garraio-ibilgailu edo garraiobide kolektibo guztietan.
- Eskola-garraioko ibilgailuetan eta oso-osorik edo partzialki adingabeak eta gaixoak garraiatzen dituzten ibilgailuak.

Honako leku hauetan debekatuta dago erretzea (18/98 Legearen 23.3 artikulua):

- Tabakoaren kaltegarritasunaren eta industria-kutsatzaileak eragindako kaltearen nahasketa dela medio langileen osasunerako arriskua handiagoa den lekuetan.
- Haurdunek lan egiten duten edozein eremutan.

Era berean, debekatuta dago erretzea honako leku hauetan, baldin eta erretzaileentzako guneak baliatu ez badira (18/98 Legearen 23.4 eta 23.5 artikulua):

- Haurtzaindegietan eta adingabeen arretarako zentro sozialetan.
- Osasun-zentroetan, zerbitzu edo establezimendu sanitarioetan eta horien sailetan.
- Gizarte-zerbitzuguneetan.
- Ikastetxeetan.
- Herri Administrazioen bulego guztietan, atari zabalean daudenetan izan ezik.
- Elikagaiak eraldatzen, maneiatzan, prestatzen edo saltzen diren lokaletan, elikagaiak kontsumitzera bideratuta dauden lokaletan izan ezik; nolana ere, elikagaiak maneiatzan dituzten pertsonak debekatuta izango dute erretzea.
- Oro har, erabilera publikokoak, irakurketarako eta erakustaldietarako diren aretoetan: museoetan, liburutegietan eta erakustaldiak jartzeko eta hitzaldiak egiteko diren aretoetan.
- Merkataritza-lokal itxietan, zeinetan jende asko biltzen den.



- Merkataritza-lokal itxietan, zeinetan jende asko biltzen den.
- Antzokietan, zinema-aretoetan eta bestelako ikuskizun publikoak eta kirol-arlokoak egiten diren lokal itxietan.
- Iggailuetan eta jasogailuetan.

28/05 Legearen arabera, adierazitako debekuez gain, honako leku hauetan ere ezin izango da erre:

- Lantoki pribatuetan (aire zabaleko guneeetan izan ezik).
- Telefono kabinetan eta kutxazain automatikoetan.
- Jatorria edo helmuga Estatuko lurraldea duten aireontzietan eta Espainiako aire-konpainietako edozein hegalditan, baita atzerriko konpainiekin partekatutakoetan ere.

Honako leku hauetan erretzeko ezarritako gune berezietan erre ahal izango da:

- Gizarte-arretarako zentroetan.
- Hoteletan eta antzeko establezimenduetan.
- 100 metro karratutik gorako azalera duten taberna eta jatetxeetan.
- Adingabeak sartzeari debekatuta dagoen jai-aretoetan eta joko-aretoetan.
- Antzerki- eta zinema-emanaldietan, baita gainerako ikuskizun publikoetan, baldin eta leku itxietan gauzatzen badira.
- Aireportuetan, autobus-geltokietan eta itsas garraioko nahiz tren-garraioko geltokietan.

1.3. Botikak kontsumitzea

Sendagaiek garrantzi handia dute bai prebentzioari dagokionez, bai minen eta gaixotasunen aurka borroka

1.
Informazioa



2.
Osasunaren inguruko hezkuntza



3.
Erabileraren arduratsuan erabiltzeko laguntza



egiteari dagokionez. Hala ere, botiken erabilera arrazionala mesedegarria da osasunerako, beste erabilera batzuek, ordea, osasun-arazo larriak eragin ditzakete. Ezin da ahaztu mediku-errezetak manipulatzek erantzukizun penala eragin dezakeela.

Oro har, sendagaiak errezeta bidez ematen dira, eta sendagai estupefazianteen eta psikotropikoen kasuan, baldintza bereziak ezartzen dira sendagai horiek agintzeko eta emateko. Errezetarik gabe ere eros daitezke sendagaiak, hori oso arrunta da biztanleriaren sektore askotan.

Sendagaiek erabilera-orri bat izaten dute, eta orri horretan honako hauek azaltzen dira, besteak beste: botikaren konposizio kimikoa, argibideak, posologia, aurkako ondorioak eta albo-ondorioak.

Medikuek eta botikariek ematen dituzten oharrak kontuan hartzen dira normalean. Nolanahi ere, automedikazioa oso handia da gure ingurunean, eta horrek onurak ez ezik arriskuak ekartzen ditu. Arrisku horiek desagertzeko, nahitaezkoa da osasunaren inguruko informazioa eta hezkuntza, pertsonen substantzia horien erabilera arduratsuan laguntzeko.

1.4. Legez kanpoko drogak kontsumitzea

Legez kanpoko substantziak kontsumitzea (kanabisa eta horren deribatuek, kokaina, heroina, pilulak eta abar) ez dago penalki zehatua. Horrek ez du esan nahi zigorrak gabekoa denik edo legeztatuta dagoenik. Jendaurrean ez kontsumitzea eta substantzia mota hori ez edukitzea lortzeko administrazio-zehapenak daude.



Espainiako Estatuan baimenduta daude substantzia horien erabilera industrialak, terapeutikoak, zientifikoak eta irakaskuntzakoak. Gainerako erabilera guztiak debekatuta daude (Estupefazienteei buruzko 17/67 Legearen 22. artikulua).

A. Jendaurrean kontsumitzea

Droga toxikoak, estupefazienteak edo substantzia psicotropikoak jendaurrean kontsumitzea herritarren segurtasunarekiko hutsegite larritzat hartzen da (1/92 Legearen 25.1 artikulua).

B. Edukitzea

Substantzia horiek edukitzea, nahiz eta droga-trafikorako izan ez, herritarren segurtasunarekiko hutsegite larritzat hartzen da (1/92 Legearen 25.1 artikulua).

C. Legez kanpoko kontsumoa toleratzea

Substantzia mota hori legez kanpo kontsumitzea edo horrekin trafikatzeari lokal edo establezimendu publikoetan, edota substantzia horiek galarazteko lokal edo establezimendu horien jabeek, administratzaileek edo arduradunek izandako ardura-gabezia herritarren segurtasunarekiko hutsegite larritzat hartzen da (1/92 Legearen 23. artikulua).



1.5. Arau-haustek eta zehapenak

A. Alkohol-kontsumoarekin zerikusia duten arau-haustek

Kasu hau **arau-hauste larritzat** hartzen da (18/98 Legea) eta honako zigor hauek ezartzen zaizkio: **3.005,06 eurotik 15.025,30 eurora** bitarteko isuna eta/edo jarduera aldi baterako etetea eta/edo establezimendua, zentroa, lokala edo enpresa aldi baterako ixtea, guztiz edo partzialki, gehienez 2 urteko epean.

- Honako kasu hauek dauden pertsonak, zerbitzuan dauden bitartean, edari alkoholduak kontsumitzea: zerbitzu publikoko ibilgailuen gidariak, sanitarioak, 18 urtetik beherako ikasleak dituzten irakasleak, arma detako kideak, eta su-armak erabiltzen dituzten gainerako profesionalak, eta oro har, alkohola kontsumitzeak kontsumitu duenaren edo hirugarrenen bizitza edo osotasun fisikoa arriskuan jar lezaketen edo kalteren bat eragin lezaketen jarduerak betetzen dituztenak (18/98 Legearen 22. artikulua).

B. Tabako-kontsumoarekin zerikusia duten arau-haustek

Duela gutxi onartutako tabakismoaren aurkako osasun-neurriei buruzko 28/05 Legea aplikatzen bada, honako hauek izan daitezke arau-hausteen erantzuleak: tabako-fabrikatzaileak, tabakoa saltzeko makinak ustiatzen dituztenak, publizitate-alorreko enpresak, eta adingabe batek erretzea debekatuta daukan leku batean erretzen ari bada, adingabearen gurasoak.

Honako hauek hartzen dira **arau-hauste larritzat, eta 30 eurotik 600 eurora bitarteko** isunarekin zehatuko dira:

- Erretzea erabat debekatuta dagoen lekuetan, edo erretzaileentzako guneetatik kanpo erretzea edo erretzeko baimena ematea.

ZEHAPEN BERAK APLIKA DAKIZKIOKE:



SENDIAK ESTUPEFAZIENTEAK
ETA
PSIKOTRÓPIKOAK
LEGE-ESKAKIZUNETATIK KANPE
KONTSUMITZEARI

ETA LEGEZ KANPOKO SUBSTANTZIEN
KONTSUMITZEARI

C. Botika-kontsumoarekin zerikusia duten arau-haustek

Sendagai estupefazianteak eta psikotropikoak lege-eskakizunetatik kanpo kontsumitzeari legez kanpoko substantziak kontsumitzearekin zerikusia duten arau-hausteei aplikatzen zaizkien zehapen berak aplika dakizkioke.

D. Legez kanpoko substantzien kontsumoarekin zerikusia duten arau-haustek

Legez kanpoko substantzia oro jendaurrean kontsumitzea (kanabisa eta horren deribatuak, kokaina, heroina, LSDa, estasia eta abar) herritarren segurtasunarekiko arau-hauste larritzat hartzen da eta honako zehapen hau aplikatzen zaio: **300,51 eurotik 30.050,61 eurora bitarteko isuna**. Horretaz gain, substantzia hauek jendaurrean kontsumitzea ibilgailu motordunetarako gidabaimena gehienez hiru hilabetez kenduta eta gidabaimena edo arma-lizentzia kenduta zehatu ahal izango da. Era berean, legez kanpoko substantziak konfiskatuko dira (1/92 Legearen 28. artikulua).

Aurreko paragrafoan azaldutako zehapenak eten ahal izango dira, baldin eta arau-hauslea desohitzeko tratamenduan jartzen bada egiaztatutako zentro batean (1/92 Legearen 25.2 artikulua). Gai hori asko kritikatu da, zeren, osasunaren ikuspegitik, legez kanpoko substantziak kontsumitzen dituzten pertsona gehienek ez baitute tratamenduan jartzeko eta desohitzeko inolako premiarik. Halaber, administrazio-zehapena eteteko tratamenduan jartzeak balio izan du tratamendua eskatzen duten pertsonen kopurua modu artifizialean hazteko. Autonomia-lurralde batzuetan ezarritako zehapenak eten dira, baldin eta kontsumitzailea arriskuak murrizteari eta kalteak saihesteari buruzko ikastaro edo hitzaldietara joaten bada.

E. Legez kanpoko substantziak edukitzearekin zerikusia duten arau-haustekak

Legez kanpoko substantzia oro edukitzea (kanabisa eta horren deribatuak, kokaina, heroina, LSDa, estasia eta abar) herritarren segurtasunarekiko arau-hauste larritzat hartzen da eta honako zehapen hau aplikatzen zaio: **300,51 eurotik 30.050,61 eurora bitarteko** isuna. Horretaz gain, substantzia hauek jendaurrean kontsumitzea ibilgailu motordunetarako gidabaimena gehienez hiru hilabetez kenduta eta gidabaimena edo arma-lizentzia kenduta zehatu ahal izango da. Era berean, legez kanpoko substantziak konfiskatuko dira (1/92 Legearen 28. artikulua).

Aurreko paragrafoan azaldutako zehapenak eten ahal izango dira, baldin eta arau-hauslea desohitzeko tratamenduan jartzen bada egiaztatutako zentro batean (1/92 Legearen 25.2 artikulua). Aurreko puntuan adierazi den bezala, autonomia-lurralde batzuetan ezarritako zehapenak eten egin dira, baldin eta kontsumitzailea arriskuak murrizteari eta kalteak saihesteari buruzko ikastaro edo hitzaldietara joaten bada.

F. Legez kanpoko substantzien kontsumoaren tolerantziarekin zerikusia duten arau-haustekak

Substantzia mota hori legez kanpo kontsumitzea edo horrekin trafikatzeko lokal edo establezimendu publikoetan, edo substantzia horiek galarazteko lokal edo establezimendu horien jabeek, administratzaileek edo arduradunek izandako ardura-gabezia herritarren segurtasunarekiko hutsegite larritzat hartzen da eta **300,51 eurotik 30.050,61 eurora bitarteko** zehapena du.



2. DROGEN SALMENTA ETA HORNIDURA

2.1. Alkohola saltzea eta hornitzea

A. Biztanleak, oro har


Legezkoa da adin nagusikoei edari alkoholdunak saltzea edo hornitzea, betiere legeriak eskatzen dituen baldintzak betetzen badira. Hala ere, honako kasu hauetan debekatuta dago alkohola adin nagusikoei saltzea eta hornitzea:

- Ondoren azalduko diren profesionaleri, jardunean ari diren bitartean (18/98 Legearen 20.1 artikulua): zerbitzu publikoko ibilgailuen gidariak, sanitarioak, 18 urtetik beherako ikasleak dituzten irakasleak, armadetako kideak, eta su-armak erabiltzen dituzten gainerako profesionalak, eta oro har, alkohola kontsumitzeak kontsumitu duenaren edo hirugarrenen bizitza edo osotasun fisikoa arriskuan jar lezaketen edo kalteren bat eragin lezaketen jarduerak betetzen dituztenak.

B. Adingabeak

Debekatuta dago adingabeei edari alkoholdunak saltzea edo hornitzea (18/98 Legearen 20.1 artikulua).
Debekatuta dago honako gune hauetan edari alkoholdunak saltzea edo hornitzea (18/98 Legearen 20.3 artikulua):

- Eskaintzen dituzten jarduera eta zerbitzuak direla medio batez ere 18 urtetik beherako bezeroentzat diren lokal eta zentroetan.
- 18 urtera bitarteko gazteei irakasten zaien ikastetxeetan.



2.2. Tabakoa saltzea eta hornitzea

A. Biztanleak, oro har

Legezkoa da adin nagusikoei tabakoa saltzea edo hornitzea, betiere legeriak eskatzen dituen baldintzak betetzen badira. Nolanahi ere, tabakoa saldu eta hornitzea honako murrizketa hauen menpe egongo da (18/98 Legearen 21.2 artikulua):

- Makina automatikoen bidez saltzea, baldin eta establezimendu itxietan gauzatzen ez bada.
- Osasun-zentroetan saltzea.
- Kirol-instalazioetan saltzea.
- Enbasatuari eta etiketatuari dagokienez, indarreko legerian ezarritako arauak bete gabe saltzea.

B. Adingabeak

Debekatuta dago 18 urtetik beherakoei tabakoa ez ezik horren erabilera bultzatzea eragingo luketen produktuak, lanak edo imitazioak ere saltzea edo hornitzea (18/98 Legearen 21.1 artikulua).

Debekatuta dago tabakoa saltzea (18/98 Legearen 21.2 artikulua):

- Makina automatikoen bidez, nahiz eta establezimendu itxietan egon, baldin eta adierazitako makina horiek adin txikikoei tabakoa saltzeko debekua betetzeko arduradun duenak ikusteko moduan ez badaude.
- 18 urtetik beherakoei irakasten zaien ikastetxeetan.
- Eskaintzen dituzten jarduera eta zerbitzuak direla medio batez ere 18 urtetik beherakoak ibiltzen diren zentro eta lokaletan.

2.3. Botikak saltzea eta hornitzea

Sendagaiei buruzko 25/90 legearen arabera eskatzen diren baldintzak kontuan izan gabe sendagaiak banatu edo gordetzea zehapen larria da, baita hondatuta, egoera txarrean dauden, edo iraunaldia igarota daukaten sendagaiak saltzea ere.

Sendagai estupefazianteak eta psikotropikoak legezko eskakizunetatik kanpo saltzea osasun publikoaren aurkako delitua da, eta Zigor Kodea aplikatuko da.

2.4. Etxean eta industrian erabiltzen diren produktuak eta arauz ezartzen diren substantzia lurrunkorrak saltzea

A. Adingabeak

Debekatuta dago produktu eta substantzia horiek adingabeei hornitu eta saltzea (18/98 Legearen 25. artikulua).

2.5. Legez kanpoko drogak saltzea eta hornitzea

A. Biztanleak, oro har

Zigor Kodearen arabera debekatuta daude legez kanpoko drogak saltzeko eta hornitzeko ekintza gehienak (368. artikulua):

- Haztea.

- Lantzea edo trafikatzeta.
- Edonola kontsumoa sustatu, lagundu edo errazten duten jokabideak: Besteak beste, substantzia mota hori ematea (diru-trukerik izan gabe), sustatzea eta bitartekaritza-lanak egitea eta hedatzea.

Hala eta guztiz ere, salbuespenak daude:

- **Norberak lantzea:** Legez kanpoko substantziak kontsumitzea ez bada delitu, norberak kontsumitzeko lantzea ere ez.
- **Kontsumo partekatua edo autokontsumo kolektiboa:** Bi kasu biltzen dira: a) *kontsumorako edukitze kolektiboa*, hainbat kontsumitzailek fondo komun bat jartzen dute kontsumitzaile horietako batek substantzia eros dezan, eta ondoren, denen artean kontsumitzeko; b) *autokontsumo kolektiboa*, hainbat kontsumitzailek substantziaren kontsumoa partekatzen dute. Kasu horietan legez kanpoko substantziaren kantitatea txikia da eta ez dago ekonomia-bitartekaritzarik.
- **Kontsumitzaileari entregatzea, hedatzeko asmorik izan gabe:** eskaintzen duena eta jasotzen duen kontsumitzaileak badira, eta noizean behingo gonbidapena bada, dosi txiki bat, eta berehala kontsumitzen bada, ez dago deliturik ez dagoelako hedatzeko asmorik eta, hortaz, ez dago babestutako ondasun juridikoari, hau da, osasun publikoari eragiteko aukerarik.
- **Ahaideek edo adiskideek kantitate txikiak ematea dohainik drogazaleei, arrazoi errukiorrak direla medio, edo haien desohitzea errazteko:** Droga-mendekoa den pertsona jakin bati legez kontrako substantzia bat ematen bazaio hura desohitzeko edo estutasuna eta abstinentzia-sindrometik eratorritako





beste ondorio batzuk saihesteko, betiere ahaideren edo adiskideren batek ematen badio, berehala kontsumitzen bada, kantitatea txikia bada, eta inolako ordainketarik ez badago.

Jurisprudenziaren arabera⁵ –beti gehiengoa izan ez arren– azken hiru kasu horiek ezin dira penalki zehatu, egokitasun sozialaren irizpidea kontuan hartuta, besteak beste, zeren arau penalak debekatzen duen guztiaren eta gizarteak egokitzat jotzen duenaren artean desfasea izugarria baita.

B. Adingabeak

Adin nagusikoei aplika dakizkiekeen debeku berak erabiliko dira adingabeentzat. Gertakari mota hori adingabeek egiten badute, Zigor Kodea aplikatu ordez Adingabeen Erantzukizun Penal arautzen duen 5/2000 Lege Organikoa aplikatuko zaie. Ondoren aipatuko dugu lege hori.

Zigor Kodeak honako ekintza hauek zehatzen ditu larrigarri gisa:

- Adingabeei legez kanpoko substantziak ematea (Zigor Kodearen 369. artikulua).
- Adingabeak erabiltzea drogen legez kanpoko trafiko-delituarekin zerikusia duten jarduerak gauzatzeko (Zigor Kodearen 370. artikulua).

C. Norberaren kontsumoa eta legez kanpoko trafikoa bereizteko irizpideak

Legez kanpoko substantzia norberaren kontsumorako ala legez kanpoko trafikorako den bereizi ahal izateko oinarritzko irizpideetako bat honako hau da: legez kanpoko substantzia duen pertsona kontsumitzailea den ala ez. Jurisprudenzia oro har adierazten du autokontsumoa eguneroko dosia bost aldiz hartzea hartzea dela; haxixaren kasuan, ordea, 25 gramo dira.

⁵ Jurisprudenzia, oinarrian, legeak interpretatzean eta aplikatzean organo judizialek egiten duten epai multzoa da.



Substantzia-kantitateaz gain, dauden datuen arabera (doitasun-balantzarik, substantzia faltsutzailerik, dirurik –eta horren jatorria justifikatu ezin denean– dagoen ala ez) epaileek interpretatu eta erabakitzen dute drogen norberaren kontsumorako kasu bat den edo drogen legez kanpoko trafiko-kasu bat den.

2.6. Arau-haustek eta zehapenak

A. Biztanleak, oro har

a. Alkoholaren salmentarekin eta hornidurarekin zerikusia duten arau-haustek

Kasu hauek arau-hauste larritzat hartzen dira (18/98 Legea) eta honako zigor hauek ezartzen zaizkie: **3.005,06 eurotik 15.025,30 eurora** bitarteko isuna eta/edo jarduera aldi baterako etetea eta/edo establezimendua, zentroa, lokala edo enpresa aldi baterako ixtea, guztiz edo partzialki, gehienez 2 urteko epean.

- Adingabeei alkoholodun edariak hornitzea eta saltzea.
- Ondoren azalduko diren profesionalei, jardunean ari diren bitartean, alkoholodun edariak hornitzea eta saltzea (18/98 Legearen 20.1 artikulua): zerbitzu publikoko ibilgailuen gidariak, sanitarioak, 18 urtetik beherako ikasleak dituzten irakasleek, armadetako kideak, eta su-armak erabiltzen dituzten gainerako profesionalak, eta oro har, alkohola kontsumitzeak kontsumitu duenaren edo hirugarrenen bizieta edo osotasun fisikoa arriskuan jar lezaketen edo kalteren bat eragin lezaketen jarduerak betetzen dituztenak.
- Eskaintzen dituzten jarduera eta zerbitzuak direla medio batez ere 18 urtetik beherako bezeroentzat diren lokal eta zentroetan alkoholodun edariak hornitzea eta saltzea.
- 18 urtera bitarteko ikasleei irakasten zaien ikastetxeetan alkoholodun edariak hornitzea eta saltzea.



b. Tabakoaren salmentarekin eta hornidurarekin zerikusia duten arau-haustek

Kasu hauek **arau-hauste arintzat** hartzen dira (tabakismoaren aurkako osasun-neurriei buruzko Legea) eta **30 eurotik 600 eurora** bitarteko zehapena aplikatzen zaie:

- Tabakoaren produktuak adingabeei saltzea.

Arau-hauste larritzat hartzen dira (tabakismoaren aurkako osasun-neurriei buruzko Legea) eta **601 eurotik 10.000 eurora** bitarteko zehapena aplikatzen zaie:

- Tabako-laginak ematea edo banatzea debekatuta dagoen lekuetan.
- Tabakoa saltzeko makinak debekatuta dauden lekuetan egotea.
- Tabakoaren produktuak beherapena aplikatuta saltzea.
- Adingabeei tabakoaren produktuak ez ezik tabakoaren produktuen itxura duten eta erretzera bultzatzen duten objektuak ere (tabakoaren produktuen itxura duten janariak, edariak, jostailuak edo bestelako objektuak eta adingabeentzako erakargarriak direnak) saltzea edo ematea.

c. Botikien salmentarekin eta hornidurarekin zerikusia duten arau-haustek

Sendagaiaren Legearen arabera, honako hauek hartzen dira arau-hauste larritzat eta, hortaz, **30.001 eurotik 90.000 eurora** bitarteko isuna ordaindu beharko dute:

- Nahitaezko baimenik ez duten pertsona fisiko edo juridikoek sendagaiak landu, fabrikatu, inportatu, esportatu eta banatzea.
- Agindu-modalitate horren eraginpeko sendagaiak errezetarik gabe ematea.



d. Etxean eta industrian erabiltzen diren produktuak eta arauz ezartzen diren substantzia lurrunkorrak saltzearekin zerikusia duten arau-haustea

Honako hauek hartzen dira **arau-hauste arintzat** (18/98 Legea) ohartarazpenarekin eta/edo **3.005,06 eurora** bitarteko isuna aplikatzen zaie:

- Produktu eta substantzia horiek adingabeei hornitzea eta saltzea, betiere jokabide horiek osasunari arrisku edo kalte larrikeria eragiten ez badiote.

Kasu hauek **arau-hauste larritzat** hartzen dira (18/98 Legea) eta honako zigorrak ezartzen zaizkie: **3.005,06 eurotik 15.025,30 eurora** bitarteko isuna eta/edo jarduera aldi baterako etetea eta/edo establezimendua, zentroa, lokala edo enpresa aldi baterako ixtea, guztiz edo partzialki, gehienez 2 urteko epean.

- Produktu eta substantzia horiek adingabeei hornitzea eta saltzea, betiere jokabide horiek osasunari arrisku edo kalte larrikeria eragiten badizkiote.

Kasu hauek **arau-hauste oso larritzat** hartzen dira (18/98 Legea) eta honako zigorrak ezartzen zaizkie: **15.025,31 eurotik 601.012,10 eurora** bitarteko isuna eta/edo jarduera aldi baterako etetea eta/edo establezimendua, zentroa, lokala edo enpresa aldi baterako ixtea, guztiz edo partzialki, 2 urtetik 5 urtera bitarteko epean.

- Produktu eta substantzia horiek adingabeei hornitzea eta saltzea, betiere jokabide horiek osasunari arrisku edo kalte oso larrikeria eragiten badizkiote.

e. Legez kanpoko substantzien salmentarekin eta hornidurarekin zerikusia duten arau-haustea

Zigor Kodeak honako bereizketa hau eragiten du: alde batetik, osasunari kalte larria eragiten dioten substantziak

edo produktuak, eta beste alde batetik, osasunari kalte larrikeragiten ez diotenak. Azken horien artean kanabisa eta horren deribatuak daude (marihuana, haxixa eta abar). Gainerako substantzia gehienei dagokienez, (heroina, kokaina, LSDa, estasia eta abar) osasunari kalte larria eragiten diotela uste da.

Legez kanpoko substantziak saltzeko edo hornitzeko ekintzak (lantzea eta arestian adierazitako gertakariak barne) direla medio ezartzen den oinarrizko zehapena urte batetik hiru urtera bitarteko espetxealdia eta isuna da, osasunari kalte larrikeragiten ez dioten substantzien kasuan, hiru urtetik bederatzi urtera bitarteko espetxealdia eta isuna, osasunari kalte larria eragiten dioten substantzien kasuetan.

Drogen legez kanpoko trafikoa	Osasunari kalte larrikeragiten ez diotenak	Osasunari kalte larria eragiten diotenak
Oinarrizkoa (ZKren 368. artikulua)	Espetxealdi-zigorra: - Gutxienez: urte 1 - Gehienez: 3 urte Isun-zigorra: - Substantziaren balioetik azken balioaren bi halako artekoa	Espetxealdi-zigorra: - Gutxienez: urte 3 - Gehienez: 9 urte Isun-zigorra: - Substantziaren balioetik azken balioaren hiru halako artekoa

Zigor Kodeak (369. artikulua) drogaren balioetik balio horren lau halako arteko isuna zehatzen du, baita goragoko mailako zigorrarekin ere, hau da, 3 urte eta egun batetik 4 urte eta 6 hilabetera bitarteko zigorrarekin, baldin eta substantzia horiek osasunari kalte larrikeragiten ez badiote, eta 9 urte eta egun batetik 13 urte eta 6 hilabetera bitarteko zigorrarekin, osasunari kalte larria eragiten dioten substantzien kasuetan, honako honen arabera:



**ZIGOR ARLOKO LEGERIAK SUSTANTZIEN
GAINEKO HONAKO BEREI ZKETA EGITEN DU:**



Osasunari kalte larriak eragiten ez diotenak



**Osasunari kalte larria
eragiten dioten sustantziak edo produktuak**

- **Gertakariak gauzatu dituenaren zirkunstantzia pertsonalak:**
 - Agintaria, funtzionario publikoa, medikua, gizarte-langilea, irakaslea edo hezitzailea bada, eta dagokion karguaren jardunean gauzatzen badu.
 - Debeekatuta dauden substantziak hedatzeko helburu duen erakunde bateko partaide bada.
 - Beste jarduera antolatu batzuetan parte hartzen badu, edo jarduera horiek gauzatzea substantzia horien legez kanpoko trafikoak errazten badu.
 - Gertakaria jendearentzat zabaldua dauden establezimenduetan gauzatzen badute bertako arduradunek.

- **Biktimen urrakortasuna:**
 - Substantzia horiek adingabeei, buru-urrituei edo desohitzeko edo errehabilitatzeko tratamendua egiten ari diren pertsoneri ematen bazaizkie.

- **Bereziki babestutako guneak:**
 - Legez kanpoko substantziak ikastetxe, zentro, establezimendu edo armadako unitate, espetxe edo desohitzeko eta errehabilitatzeko zentroetan edo horien inguruan saldu edo hornitzen badira.

- **Substantzien ezaugarriak:**
 - Kantitatea **garrantzi nabarmeneko** bada. 2001eko urritik aurrera, Auzitegi Gorenaren iritziz kantitatea **garrantzi nabarmeneko** da 500 dosiren parekoa bada egun bakoitzeko.
 - Marihuana: 10 kilo.
 - Haxixa: 2,5 kilo.
 - Haxix-olioa: 300 gramo.



ZEHAPENA

Heroina: 300 gramo.

Kokaina: 750 gramo.

Estasia: 240 gramo.

- Faltsutzea, manipulazioa edo horien arteko edo beste substantzia batzuen arteko nahasketa badago, eta horrek osasunari egin liezaiokeen kaltea areagotzen badu.

- **Gertakariak gauzatu dituzten pertsonen erabilitako bitartekoak:**

- Gertakariak gauzatzeko indarkeria erabiltzen badute, edo armak erakusten edo erabiltzen badituzte.
- Legez kanpoko substantziak legez kanpo sartzen edo ateratzen badituzte herrialdetik edo gertakari horiek gauzatzen laguntzen badute.

Drogen legez kanpoko trafikoa	Osasunari kalte larrikeria eragiten ez duten substantziak	Osasunari kalte larria eragiten duten substantziak
Areagotua (ZKren 369. artikulua)	Espetxealdi-zigorra: - Gutxienez: 3 urte eta egun bat - Gehienez: 4 urte eta 6 hilabete Isun-zigorra: - Substantziaren balioetik azken balioaren lau halako artekoa	Espetxealdi-zigorra: - Gutxienez: 9 urte eta egun bat - Gehienez: 13 urte eta 6 hilabete Isun-zigorra: - Substantziaren balioetik azken balioaren lau halako artekoa

Halaber, Zigor Kodeak (370. artikulua) aurreikusten du substantziaren baliotik azken balioaren sei halako arteko isuna, eta arestian aipatutako maila bat edo bi gehiagokoak ezartzea, hau da, 3 urte eta egun batetik 6 urte eta 9 hilabetera bitartekoa, osasunari kalte larrik eragiten ez dioten substantzien kasuan, eta 9 urte eta egun batetik 20 urte eta 3 hilabete bitartekoa, osasunari kalte larria eragiten dioten substantzien kasuan, honako suposizio hauetan:

- **Erabilitako bitartekoengatik:**

- Delitu mota horiek egiteko adingabeak edo buru-urrituak erabiltzea.

- **Egilearen estatusaren arabera:**

- Drogen legez kanpoko trafikoarekin zerikusia duten delituak egitea helburu duen edo delitu horiek egiten laguntzen duten jarduerak gauzatzen dituen erakundearen nagusia, administratzailea edo arduraduna bada.

- **Larritasun handiko jokabideak:**

- Honako hau hartzen da larritasun handitzat: substantziaren kantitateek nabarmen gaintitzen badute garrantzi nabarmena, ontziak edo aireontziak erabili badira berariazko garraio bide gisa, enpresen artean nazioarteko merkataritza-eragiketak gauzatu badira, jarduera mota horiek gauzatzen dituzten nazioarteko sareak badira, edo Zigor Kodearen 369. artikuluan aurreikusitako hiru zirkunstantzia edo gehiago badaude.

Drogen legeaz kanpoko trafikoa	Osasunari kalte larrik eragiten ez dioten substantziak	Osasunari kalte larria eragiten dioten substantziak
Hiper - Areagotua (ZKren 370. artikulua)	Espetxealdi-zigorra: - Gutxienez: 3 urte eta egun bat - Gehienez: 6 urte eta 9 hilabete Isun-zigorra: - Substantziaren baliotik azken balioaren sei halako artekoa	Espetxealdi-zigorra: - Gutxienez: 9 urte eta egun bat - Gehienez: 20 urte eta 3 hilabete Isun-zigorra: - Substantziaren baliotik azken balioaren sei halako artekoa

Drogen legeaz kanpoko trafikoarekin zerikusia duten delituengatik zigorrak oso-oso gogorrak izaten dira eta, osasunari kalte larria eragiten dioten substantziak badira, eta, gainera, areagotze-kasuren bat (ZKren 369. artikulua) edo hiper-areagotzearen kasuren bat (ZKren 370. artikulua) badago, hilketagatiko edo erailketagatiko zehapenak gainditu ditzakete. Nolanahi ere, zehapenen gogortasuna berealdikoa izateak ez du balio izan delitu mota hori murrizteko.

B. Adingabeak

Zigor Kodearen 19. artikulua ezartzen du hemezortzi urtetik beherakoa ez dela erantzule izango Zigor Kodearen arabera, baizik eta adingabeen erantzukizun penala arautzen duen Legean ezarritakoaren arabera izango dela. Hortaz, Zigor Kodean edo lege berezietan delitu edo hutsegite gisa tipifikatuta dauden delituzko ekintzak gauzatu dituzten 14 urtetik 18 urtera bitarteko adingabeei eska dakieke erantzukizuna, betiere Adingabeen Erantzukizun Penala arautzen duen Lege Organikoa (AEPALO) aplikatuta.

14 urtetik beherakoei ez zaie lege horren araberako erantzukizunik eskatuko, baizik eta adingabeak babesteari buruzko arauetan –Kode Zibilean eta indarrean dauden gainerako xedapenetan aurreikusita daudenak– ezarritakoa aplikatuko zaie, AEPALOren 3. artikulutik ondorioztatzen denaren arabera.

AEPALO Legeak –arestian adierazi da 14 urtetik 18 urtera bitarteko adingabeei aplikatzen zaien Legea dela– bi adin-tarte bereizten ditu:

- 14 urtetik 16 urtera bitartekoak.
- Eta 16 urtetik 18 urtera bitartekoak, eta horrek garrantzi berezia du; izan ere, horrek areagotze berezia ekartzen du, delituak gauzatzen dituztenean indarkeria, larderia erabiltzen dute, edo pertsonak arriskuak jartzen dituzte.

Delitu batean adingabe batek duen erantzukizuna egiaztatutakoan, aplika daitezkeen neurriak AEPALO legearen 7. artikuluan biltzen dira eta, ondoren, neurri horiek aplikatzeko arauak ezartzen dira. Araubide orokorra 9. artikuluan arautzen da, arau bereziak, ordea, 10. artikuluan azaltzen dira. Neurriak honako hauek dira:

- Barneratzea, adingabeari egin behar zaion kontrolaren araberakoa izango da, eta honelakoa izan daiteke:
 - Erregimen itxikoa.
 - Erregimen erdirekikoa.
 - Erregimen irekikoa.

- Barneratze terapeutikoa: aurreikusita dago mendekotasun eta/edo anomalia edo nahasmendu psikikoak direla medio, adingabe horiek barneratzea behar badute. Neurri hori bera bakarrik, edo beste neurri baten osagarri gisa aplikatu ahal izango da. Barneratze terapeutikoa honelakoa izan daiteke:
 - Erregimen itxikoa.
 - Erregimen erdirekikoa.
 - Erregimen irekikoa.
- Tratamendu anbulatorioa, anomalia edo nahasmendu psikikoa, edo alkoholarekiko edo drogekiko mendetasuna duten adingabeentzat aurreikusita dago, horien intereserako mesedegarria baita horien bitarteko ingurunean tratatzea.
- Eguneko zentro batera joatea.
- Asteburuko egonaldia.
- Askatasun zaindua.
- Biktimarengana hurbiltzea edo harekin hitz egitea debekatzea.
- Beste pertsona, familia edo hezkuntza talde batekin bizitzea epe jakin batean.
- Gizartearentzat lan egitea.
- Gizarte- eta hezkuntza-arloko lanak egitea.
- Kargu-hartzeak.
- Ziklomotorrak edo ibilgailu motordunetarako gidabaimena, edo gidabaimena lortzeko eskubidea kentzea, edota ehizarako edota edozein motatako armak erabiltzeko administrazio-lizentziak kentzea. Neurri erantsia, gertakariak erlazioa duen kasuetan.
- Erabateko desgaitzea.



3. GIDATZEA ETA DROGAK

3.1. Gidatzea eta alkohola


Arau orokor gisa, inork ezin du gidatu –ezta bizikletak ere– litro bakoitzeko 0,50 gramotik gorako alkohola izanik odolean (1428/03 Errege Dekretuaren 20. artikulua).

Honako kasu hauetan odolean dagoen alkohol-tasa ezin da 0,3 gramotik gorakoa izan litro bakoitzeko (1428/03 Errege Dekretuaren 20. artikulua):

- Gidabaimena edo gidatzeko baimena ematen duen lizentzia lortu eta lehenengo bi urteetan.
- Merkantziak garraiatzeko ibilgailuak (3.500 kilogramotik gorako gehienezko masa baimenduariekin) gidatzen dituenak, baita bidaiariak garraiatzeko bederatzi plazatik gorako ibilgailuak, edo zerbitzu publikoko, eskola-garraioko eta adingabeen garraioko ibilgailuak gidatzen dituenak.
- Gai arriskutsuak edo garraio bereziak garraiatzen dituzten ibilgailuak gidatzen dituztenak.
- Larrialdi-zerbitzuak gidatzen dituenak.

3.2. Gidatzea eta estupefazianteak, psikotropikoak, bizigarriak eta antzeko beste substantzia batzuk.

Honako hauek debekatuta daukate gidatzea –ezta bizikletak ere–: psikotropikoak, bizigarriak eta antzeko beste sustantzia batzuk hartu edo organismoan sartu dituztenek, Adierazitako substantzia horien artean **sendagaiak** eta bestelako substantziak **daude**, betiere substantzia horien eraginak arriskurik gabe zirkulatzeko behar den



egoera fisikoa edo buruko egoera aldatzen badute (1428/03 Errege Dekretuaren 27. artikulua).

3.3. Alkoholemia-proba edo substantzia estupefazianteak, psikotropikoak, bizigarriak edo antzeko beste substantzia batzuk atzemateko probak egin nahi ez izateari erreparatuz

Gidari guztiak behartuta daude alkoholaren (1428/03 Errege Dekretuaren 21. artikulua) edo substantzia estupefazianteen, psikotropikoen, bizigarrien edo antzeko substantzien ondorioz egon litezkeen intoxikazioak (1428/03 Errege Dekretuaren 28. artikulua) atzemateko ezartzen diren probak egitera.

Adierazitako probak egiteari uko egiten bazaio, zigorra ezarri ahal izango zaio uko egin duenari, desobeditze-delitu larriaren egile gisa (Zigor Kodearen 380. eta 556. artikulua); era berean, ibilgailua lehenbailehen geldiaraziko da.

3.4. Arau-haustek eta zehapenak

Honako hau hartzen da trafikoaren segurtasunaren aurkako **delitutzat** (Zigor Kodearen 379. artikulua):

- Edari alkoholdunen, estupefazianteen, substantzia psikotropikoen eraginpean egonik ibilgailua gidatzea.

Zehapena:

- 3 hilabetetik 6 hilabetera bitarteko espetxe-zigorra, edo 6 hilabetetik 12 hilabetera bitarteko isuna eta, hala badagokio, 31 egunetik 90 egunera bitarte gizaratearentzat lan egitea.
- Ibilgailuak gidatzeko eskubidea kentzea urte batetik 4 urtera bitarteko epean.



Honako honek desobeditze-delitu larria egiten du (Zigor Kodearen 380. artikulua):

- Alkoholemia-kontrolako edo substantzia estupefazianteen eta psikotropikoen kontrolako probak egin nahi ez dituen ibilgailuaren gidariak.

Zehapena:

- sei hilabetetik urte batera bitarteko espetxe-zigorra.

Honako hauek hartzen dira **administrazioko arau-hauste** oso larritzat (5/97 Legearen 65. artikulua):

- Edari alkoholdunak hartuta gidatzea, eta alkohol-tasa arestian adierazitako tasak baino handiagoa bada.
- Estupefazianteen, psikotropikoen eta antzeko beste edozein substantziaren eraginpean egonik gidatzea.
- Alkohola, estupefazianteak, psikotropikoak eta antzeko beste edozein substantzia atzemateko probak egiteari uko egitea.

Zehapenak:

- Zehapen oso larriei **302 eurotik 1.503 eurora bitarteko** isuneko zehapena ezartzen zaie, eta gidabaimena edo gidatzeko lizentzia gehienez 3 hilabetez ken daiteke.

Administrazioko arau-hauste bat eta delitu bat aldi berean gertatzen badira, zehapena ez da bikoitza izango. Pertsona berak gertakari bakar bat eta oinarri juridiko berarekin egiten badu, behin bakarrik zigortu ahal izango da. Kasu horietan, jurisdikzio penalak lehentasuna izango du.



4. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE GAI BATZUK

4.1. Identifikatzea eta miaketa

Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako kideek eskatu ahal izango diote jendeari identifikatzeko bide publikoan, betiere identifikatze hori nahitaezkoa bada segurtasuna babesteko (1/92 Legearen 20.1 artikulua).

Lekuan bertan identifikatzea ezinezkoa bada, agenteek eskatu ahal izango diete identifikatu ezin izan dituzten pertsoneri hurbilenerako bulegoetara joateko, haiekin batera, identifikatu ahal izateko. Bulego horietan identifikatzeko behar den denbora soilik emango dute (1/92 Legearen 20.2 artikulua).

Era berean, poliziaek miatu ahal izango dute kalean. Miaketa behar bezala egin behar da, pertsona bat ezin da bide publikoan biluztu, eta debekatuta dago parteak ukitzea. Auzitegi Gorenaren iritziz, “... *miaketa ez da miatutako pertsona atxilotzeko eginbide bat. Maila txikiagoko eta iraupen laburreko askatasun-murrizketa da, duen helburuak justifikatua, eta neurritz eta miatutako pertsonarekiko ahalik eta errespetu handienarekin egin beharreakoa, eta soil-soilik nahitaezkoa denean, eta nahitaezkoa den bitartean, delitu-ekintza bateko tresnak edo zerak lortzeko...*”. (Auzitegi Gorenaren 432/2001 Epaia).

4.2. Ondorioak, mugaren alde batean eta bestean

Espainiako eta Frantziako Estatuak Europar Batasuneko kide diren arren, eta 2004. urtearen amaieratik aurrera drogen trafikoaren eremuan delituak izan daitezkeen elementuei ezarri beharreko gutxieneko xedapenak



eta aplika daitezkeen zigorrak ezartzeari buruzko Erabaki Marko bat indarrean dagoen arren, Erabaki Marko horrek Estatukideen erabakiaren menpe uzten ditu norberaren kontsumoarekin zerikusia duten ekintzak.

Oro har, Frantziako legeria Espainiakoa baino askoz zorrotzagoa da. Legez kanpoko drogak kontsumitzen dituztenei espetxe-zigorrak jar dakizkieke.

4.3. Erabilera terapeutikoa

Sendagai estupefazianteen edo psicotropikoen erabilera terapeutikoa legezkoa da, betiere agintzeko eta emateko baldintza bereziak beteta gauzatzen bada.

Gaur egun, proba kliniko jakin batzuk direla-eta, zenbait kasutan eman izan da diazetilmorfin (heroína) eta, beste zenbait kasutan, kanabisa erabilera terapeutikorako. Egungo legeriaren arabera, honako hauek hartzen dira sendagaitzat: “ikerketa klinikoaren fasean dauden produktu” gisa bereziki sailkatuta dauden substantziak edo substantzien nahasketak (Sendagaiei buruzko 25/90 Legearen 6.2 artikulua).

Era berean, legeriak aurreikusten du *erabilera errukiorra* egiteko aukera, hau da, gaixo bakan batzuek ikerketa klinikoaren fasean dauden produktuak erabiltzeko aukera izatea proba kliniko batetik kanpo, edo baimendutako erabilera-oharrak edo -baldintzak ez diren beste erabilera batzuetarako erabiltzea farmazia-espezialitateak, betiere medikuak, bere erantzukizunpean, espezialitate horiek erabiltzea nahitaezkoa dela irizten dionean.

Aurreko paragrafoan azaldutako kasuak medikuen agindupean eta gainbegiratzepan gauzatuko dira. Hala eta

gutziz ere, gero eta jende gehiagok jotzen du erabilera terapeutikora (alor medikoak baino espektro handiagoa hartzen du), batzuetan osasun-profesional batek gomendatu diolako –beti ez du jendaurrean adieraziko emandako aholkua–, eta beste batzuetan, erabili duten beste pertsona batzuek proposatu diotelako. Legeak ez du babesten erabilera terapeutiko hori, baina 1/92 Legea aplikatzen bada, komenigarria da jakinaraztea espedienteari hasiera eman dion polizia-agenteari, datu hori espedientean azaltzeko.

4.4. Kontsumorako tresnak non-nahi uztea

Zigor Kodearen eta herritarren segurtasuna babesteari buruzko 1/92 Legearen arabera, zehatuta dago kontsumorako tresnak non-nahi uztea:

Norbaitzuek xiringak, edozein kasutan, edo bestelako tresna arriskutsuak uzten badituzte, pertsoneri kalte eragin ahal dieten edo pertsonak gaixotasunez kutsatu ahal dituzten modu eta inguruabarretan, edo adingabeak sarritan joaten diren tokietan, orduan, halakoei sei egunetik 10 egunera bitarteko lokalizazio iraunkorreko zigorra edo hilabetetik bi hilabetera bitarteko isuna ezarriko zaie (Zigor Kodearen 630. artikulua).

Kontsumorako erabilitako materialak edo tresnak leku, bide, establezimendu edo garraio publikoetan uztea, betiere arau-hauste penaltzat hartzen ez bada, herritarren segurtasunarekiko arau-hauste larria da (1/92 Legearen 25.1 artikulua) eta **300,51 eurotik 30.050,61 eurora bitarteko** zehapena ezartzea ekarriko du. Horretaz gain, tresna horiek adierazitako lekuetan uzteak motordun ibilgailuetarako gidabaimena gehienez hiru hilabetez kenduta eta gidabaimena edo arma-lizentzia kenduta zehatu ahal izango da. Era berean, legez kanpoko substantziak konfiskatuko dira (1/92 Legearen 28. artikulua).



1/92 Legearen 25.1 artikulua azaltzen diren zehapenak eten ahal izango dira, baldin eta arau-hauslea desohitzeko tratamenduan jartzen bada egiaztatutako zentro batean.

4.5. Kasu salbuesleak eta aringarriak

Zigor Kodearen 20. eta 21. artikuluetan biltzen diren kasu salbuesleak eta aringarriak gain, Zigor Kodeak aurreikusita dauka ezarritako zehapena drogazaleari arindu ahal izateko aukera gertakariak gauzatzen diren unean, baldin eta arau-hausleak egiten ari den desohitze-tratamenduarekin jarraitzen bada.

4.6. Kartzelaren alternatibak

Zigor Kodearen arabera, epai irmoan ezarritako zigorra eten ahal izango da, eta eteteko oinarriko figurarekin batera (Zigor Kodearen 80. artikulutik 86. artikulura bitarte) beste kasu berezi batzuk arautzen ditu Kode horrek: drogazaleari ematen zaiona, baldin eta desohitzeko tratamenduan jartzen bada (Zigor Kodearen 87. artikulua), gaixo sendaezinei ematen zaiona (Zigor Kodearen 80.4 artikulua), eta agertutako buru-nahasketaren ondorioz eten ahal izatea (Zigor Kodearen 60. artikulua).

4.7. Drogen eremuko legeriak askoz ere gai gehiago biltzen ditu

Drogen eremuko legeriak alderdi asko eta oso desberdinak biltzen ditu. Gida honek ez du laburbiltzen drogei buruzko legeria guztia, baizik eta zuzenean adingabeei, horien gurasoei eta hezitzaileei zalantza gehien eragiten dizkieten kasuak azaldu dira. Honako hauek dira drogei buruzko legeriarekin zerikusia duten beste gai batzuk:

aitzindarien erabilera mugatzea (ZKren 371. artikulua), zigor osagarriak (ZKren 372. artikulua), konfiskatzea (ZKren 374. artikulua), delazioa (ZKren 376. artikulua), entrega zaindua, ezkutuko agentea eta abar.

4.8. Errekurtsoa jartzeko aukera

Norbaiti zehapen bat jarri bazaio, eta ez badago ados horrekin, dagokion errekurtsoa jarri ahal izango du. Abokatutzaren profesionalak eta erabiltzaileen zenbait elkartek aholkuak eman ohi dituzte errekurtso hori gauzatzeko.

4.9. Drogen kontsumitzaileen eskubideak

Hitzaurrean adierazi da drogen kontsumo orok arriskuak dituela, ez direlako kalterik egiten ez duten substantziak. Nolanahi ere, biztanleen hainbat sektoreren eskubideak babestea (adingabeak, ezindua eta abar) ez da nahikoa arrazoi helduek drogak kontsumitzeko duten ahalmena debekatzeko.

Legeztatutako drogen kontsumitzaileei eta legez kanpoko substantzien kontsumitzaileei gaur egun onartzen zaizkien eskubideak (informaziorako, hezkuntzarako, osasuna babesteko, ordezkatzeko eta abarretarako eskubideak) praktikan jartzen diren heinean, azken kontsumitzaile horietako askok dituzten arriskuak nabarmen murriztu daitezke. Drogen kontsumitzaile orok dituen eskubideetan sakontzea prebenitzeko eta arriskuak murrizteko modu bat da, zeren, beste gai batzuen artean, prebentzioak errepresiozko politikaren osagarri bat izateari uzten baitio eta norberaren askatasunari dagokionez, esku-sartzeen muga bihurtzen baita.



 **ADINGABEAK** \neq **PERTSONA HELDUAK**

Debekua \neq **Babesa**



**INFORMAZIOA, HEZKUNTZA
ETA
PREBENTZIOA**



Honako honen berri eman behar da: drogen fenomeno sozialari buruzko legeriak ez duela esan nahi substantzia batzuk eta ez beste batzuk legez kanpo uzteko irizpideekin bat etorri behar denik, ezta drogen eremuko egungo politikei eusteko azaldutako arrazoiekin bat etorri behar denik ere.



5. HELBIDE INTERESGARRIAK

- Drogen eta Toxikomanien Europako Behatokia (DTEB)
<http://www.emcdda.europa.eu>.
- Drogen Plan Nazionala:
<http://www.pnsd.msc.es/>
- Eusko Jaurlaritzaren Droga Gaietako Zuzendaritza:
<http://www.euskadi.net/asuntossociales/>
- SIIS (Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa)
<http://www.siiis.net/>
- Drogomedia:
<http://www.drogomedia.com/>
- Kriminologiaren Euskal Institutua (IVAC/KREI)
<http://www.sc.ehu.es/scrwwwiv/publicacionesdrogas.html>
- Droga-mendetasunari aurka egiteko fundazioa
<http://www.fad.es/Home>
- Energy Control:
<http://www.energycontrol.org/>



